ARRAINAK BERMEON

IZENA HARTU ETA IZENA EMON



ARRAINAK BERMEON: IZENA HARTU ETA IZENA EMON erakusketa
2018-12-04 / 2019-06-02

Testuak:
Aingeru Astui Zarraga
Irudiak:
*Mario de Hormaechea (ARRANTZALEEN MUSEOAren bilduma):
7, 9, 10, 11 orrialdeak; 1, 2, 3, 4, 5, 6, 9, 10 , 11, 14, 15, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 59, 60, 62, 63, 66, 67, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 81, 82, 83, 87, 88, 92, 95, 96, 97, 98, 99, 100, 101, 102, 103 arrainen irudiak.
*RODRÍGUEZ SANTAMARÍA, Benigno: Diccionario de Artes de Pesca de España y sus posesiones; Madrid 1923:
Azaleko eta 11. orrialdeko irudiak.
*Bestelakoak WWW saretik hartuak dira.
Edizino eta koordinazinoa: Aingeru Astui, Leire Irazabal
Diseinu grafikoa eta produkzinoa: IRUDI
D.L. BI-238-2019
ISBN 978-84-7752-646-9

Eskerrona: Aritz Abaroa Cantuariense eta José María Ferarios Lázaro

ARRAINAK BERMEON

IZENA HARTUN DA IZENA EMON

AINGERU ASTUI ZARRAGA

HITZAURREA

Arrainen izenak, *hartu eta emon*. Aingeru Astui arrain-izendegi honen egileak bere gogo eta ahalegina, izenok ahaztu ez daiguzan izan da. Lanbideak, jarduerak aldendu edo aldatu ahala, euren izenak be ahanzturaren zulotik galdu doaz. Izen ezagun-jakinak dira batzuk, baina "bereziak" dira hainbat: edo merkatuan ez dagozan arrainenak diralako, edo gaztelaniazko ordain-izen indartsuagoek iruntsi dituelako. Euskal itsasertzean eta Bermeon bertan aurretik egin diran bilketak osotzera dator lan hau: edo hutsuneak betetera, edo esangurak zehaztu eta aberastera. Ahaleginak guztiak be labur gelditzen dira, belaunez belaun Bermeoko arrantzaleek itsasoan euskera hutsean bizi izan daben *itsasopeteko* esperientzia astuna batzeko.

Arrain-izen asko bigarren esanguraz be sarri erabili daroaguz itsas herriotan: lagunen izakerearen ezaugarri bat edo beste adierazoteko, esangura figuratiboaz, eta era horretana izenok balio bikoxa irabazten dabe, eta pertsonen ezaugarri bihurtzen diran adjektibook, berbaz bizirik diranak, literaturara eroan ezkero, hainbat emonkorrago eta aberatsago bihurtzen dira.

Ordu onean betor *Arrainak Bermeon: izena hartu eta izena emon*, eta bihur bedi Bermeoko euskera-iturriaren emon feskagarri.

Adolfo Arejita
2019-03-24.

SARRERA

Gure arrantza portuak aldatuta dagoz. Baita gure arrantzaleak be. Oraindino ez da denpora asko, ehundaka eta ehundaka enbarkazino ibiltzen ziran arrantzan ofizio ezbardinetan, gure kostan bertan, kalatan edo beste ur zabalagoetan. Harrapatzen ziran espezieak be ugariak ziran: batzuk balio komertzial handidunak eta beste batzuk ez horrenbeste; batzuk ezagunak jendarte guztian eta beste batzuk bakarrik arrantzaleen inguruan; batzuk kontserba fabriketarako egokiak eta beste batzuk arrainurun-fabriketarakoak; batzuk moila ganetik kainaberaz harrapatzen zirenak eta beste batzuk urruneko ozeanoetako ur-tropikaletakoak...

Gure gaztaroan Bermeoko kofradiaren bentapera joaten ginen egunean harrapaturiko arrainak ikustera. Gehienak oso ezagunak ziran: bokartak, atunak, txitxarroak, berdelak, lebatzak, besiguak eta holakoak, baina bazter batetan egoten ziran "arrain bereziak", kopuru gitxian harrapatzen zirenak, sarritan ale bakarrak baino ez ziren egoten han. Hareek ikustean gure jakinmina biztuten zan eta arrantzale zaharrei edo-ta portuko neskatilei galdetzen geuntsen arrain hareen izenak. Bateleroak ziran beste pertsona interesgarri batzuk arrain espezieak eta euren izenak ikasteko ze, honeek arrantza selektiboa egiten eben, eta kalidadezko arrain espezieak baino ez ebezan harrapatzen, kopuru gutxietan.

Aspaldiko urteetan gure kostaldeko arrantza-kalak agortu egin ei dira eta, gure arrantza flota hiruzpalau espezie bakarrik harrapatzera dedikatu izan da, hau da, balore komertzialdun arrainak harrapatzera. Aldaketa honek, beste batzuen artean, arrain eta beste itsas-espezie ezagun askoren existentzia ahaztutera eroan gaitu. Eta noizbehinka hareetariko arrain komertziala ez dan espezieren bat harrapatzen danean, ez da itxuraz be ezagutzen eta, beraz, inork ez daki haren izenik. Eta "inork" dinodanean arrantzaleak eurak be taldean sartzen dodaz. Gaur egun, espezie komertzialak baino ez doguz ezagutzen. Beste guztiak, normalean harrapatu be ez diran lez egiten, izena be galdu egin dabe. Eta lehen edozein arrantzalek jakiten baebazan arrainak bereizten, gaur ez da halan gertatzen.

Galdu ez dan izena, kasu askotan, aldatu egin da, eta espezieren bat deskribatzeko berbea behar dogunean, gaztelerazko izenen bat erabiltzen dogu euskerazkoaz inor ez da gogoratzen eta. Horra hor, esate baterako, *eskimarra* gaur *erisue* bihurtu dala; edo-ta *marmoka*, *medusa*. Gure gaztaroan moilatik arrantzan egin aurretik *aixarretan* joaten ginen karnadatarako erabiltzeko: orain *gusanak* erabiltzen dira. Inork ez daki *Akule bidegardie* zer dan *pezespadie* dala argitu arte.

Beste alde batetik, Bermeon (eta beste portu batzuetan be) itsas-terminologia zabalduta dago bizitza arruntera, eta horregaitik eperdiari *popie* esaten deutsagu edo umedun dagoen emakumearen sabelari, *tuntuxe*. Eta arrainak be pertsonen jokabidea adierazteko balio dabe sarri-askotan. Pertsona epela edo ez kementsuari *abuxe* dala esango deutsagu; edo alperra edo baldarrari, *tolle* lakoa... Baina ez badakigu *abuxe* edo *tolle* zertzuk diran, zelan deskribidu pertsona horreen jokabidea?

Horregaitik gure izan dot Bermeoko arrainen izendegi hau erakusketa honetan agertzea, memoria dalako jadanik. Honen antzeko zerrenda bat publikatu neban Bermeon 1990tik 2005era bitartean argitaratzen zan *Akatz* aldizkarian. Bildumagarria zan, hau da, hamabostero agertzen zan orrialde baten zerrenda zatitxo bat. 1998-1999 urteetan, 19 aletan osatzen zan bilduma osoa (aldizkariaren 182 zenbakian hasi eta 201ean amaitu).

Badagoz argitaratuta arrainen izen bermeotarrei buruzko beste lan batzuk be. Esate baterako, Andoni Anasagastiren *Itsas espezierik garrantzitsuenen Bermeoko terminologia* (*Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 12. urtea, 35-36 zb., 1980, 353-370); edo Eneko Barrutiaren *Arrainen izenak Bizkaian XX. mendean* (*Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 25 zb, 2003, 269-297). Beste lan zabalagoetan be (hiztegietan adibidez) agertzen dira arrainen izenen Bermeoko barianteak: Azkueren hiztegian, Barrutiaren arrantzaleen lexikoaren azterketetan, Anton Perezen Bermeoko euskerari buruzko liburutxoetan...

Amaitzeko, gure itsas-ondarearen atalik garrantzitsuena dan euskerearen bitxi bat salbatuko dogu izen honeek gordetean. Badakigu, ganera, portu batetik bestera itsas-espezieen izenak aldatu egiten direla, eta beraz, portu guztietako izendegiak batu ezkero taula oso interesgarria suertatuko litzatekeen. Egin dagigun ba, ahalegin hori.

Aingeru Astui Zarraga.


*Oharra: Sarrera hau *Bermeoko arrantzaleen arrainen izendegia* (ASTUI ZARRAGA, Aingeru; *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 8, Untzi Museoa - Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2016, pp. 371-384) lanean agerturikoa da, erakusketa honetarako egokitua.

ARRAINAK


Arrainak uretako animalia ornodunak dira, gehienean poikilotermoak (bere tenperaturea erregulatzen dau ingurugiroaren arabera, "odol hotzekoak").

Maizenik, arnasketa zakatzen bidezkoa izaten da.


Gorputz eskamatsu eta hegatsez hornidua izaten dabe uretan ibili ahal izateko. Elikadura iturri garrantzitsua dira pertsonentzat.



Hazurdun arrain arraren anatomia.



Arrainaren kanpoaldeko anatomia. Hazurdun arrainaren buruaren atalak. Hazurdun arrainaren buruko aldeak.



ARRAINA EUROPAKO HIZKUNTZETAN

Europan ARRAINA adierazteko modu asko dago. Hara hemen horreetariko batzuk:

Euskeratik:
- Arraina (euskeraz)


Latinezko PISCIS-etik:
- Pez edo Pescado (gaztelera)
- Peixe (galiziera-portuges)
- Poisson (frantsez)
- Pesk (bretoiera)
- Pysgod (gales)
- Pesu (korsikera)
- Pisch (sardu)
- Pisci (siziliera)
- Peshk (albaniera)
- Pește (errumaniera)

Protogermanikoko FISKAZ-etik:
- Fish (ingeles)
- Fisk (daniera-norvegiera-suediera)
- Vis (nederlandera)
- Fisch (aleman)
- Fiskur (islandiera)


Protozeltiarreko ΦEISKO-tik:
- Iasc (gaeliko-irlandiera)
- Iasg (gaeliko-eskoziera)

Aintzinako Grekoko ΨΑΡΙΣ-tik:
- Ψάρια (psária) (greko modernoa)

Protoeslabierako RYBA-tik:
- Рыба (ryva) (errusiera)
- Риба (ryba) (ukraniera)
- Ryby (poloniera-txekiera-eslovakiera)



SAILKAPEN ZIENTIFIKOA



ARRAINEN IZENA

Izen zientifikoa

Nazinoartean onartzen den bakarra. Latinez edo latinizatua izaten da. Berba bikoa:
- generoaren izena hasierako maiuskulaz
- berariazko izena minuskulaz

Adibidez: Diplodus sargus

Aurrerapen zientifikoak izena aldatzea behartu ahal dabe, eta orokorrean generoari bakarrik eragiten deutson arren, nahasketa eta arazoen jatorria izaten da.

Esate baterako, Sparus sargus da Diplodus sargusen izen zaharra.

Ezin bada espeziea ziurtasunez idenfikatu, baina generoa ezagutua da, sp. laburdura erabiltzen da. Adibidez: Diplodus sp.-k hainbat espezie ezbardin hartzen dauz: Diplodus sargus, Diplodus cervinus, Diplodus puntazzo...

Izen arrunta

Ez dau araurik jarraitzen. Izan lei latinezko itzulpen bat, beste hizkuntza batekoa, izen zientifikoaren zati bat edo egoeraren arabera asmatua.

Hizkuntza edo-ta lurralde bakoitzean ezbardina izaten da eta nahasterako motiboa da. Espezie batzuek izen arruntik ez daukeen bitartean, beste batzuk hainbat daukiez.

Esate baterako: Galeus melastomus izen zientifikodunak, Mocina, Bocanegra, Baquia, Golayo, Moixina, Itxuki eta beste hainbat izen arrunt be hartzen dauz.

ARRAINEN IZENEN NAHASTE-BORRASTEA


Asturiasen Xargu edo Chopa, Balearesen Sard, Canariasen Sargo blanco, Cantabrian Jargo edo Chapeta, Catalunyan Sarg, Valentzian Sard, Galizian Sargo. Eta berton, Euskal Herrian be, Muxarra, Sarbua, Partxemikia... Baina zein da arrain hori? Ba zalantza guztiak baztertzeko esango dogu Diplodus sargus dala.

Ez da nahaste-borrastea?

Lurralde ezbardinetan arrain espezieei emoten jakozan izenen dibertsidade handiaren aurrean, Europar Batasuneko hainbat arautegik Estatu-kideek behartzen dabez euren esparruko izen-komertzial onartuen zerrendak argitaratzera, izen zientifikoekaz batera. Lurralde ezbardinetan onartuak diran deiturak izen ofizialaren osagarriak izango dira.

Beraz, arau honen arabera, gure arrain misteriotsuaren nortasun agiria Euskal Autonomi Erkidegoan hau da:

SARGO- Diplodus sargus-Muxar handia





ARRAINEN IZENAK PERTSONENTZAT

Arrainek bere izena hartzen dabe hainbat modutara. Zientifikoek arrain bakoitzaren espeziea, klasea, azpiklasea, etabarren arabera emoten deutse izena. Besteok, barriz, sarri askotan, latinezko edo beste hizkuntza bateko itzulpenak, izen zientifikoaren zati bat(zuk) edo-ta asmaturiko izenak emoten deutsaguz.

Baina arrainek be, pertsonei edo pertsonen egoera, itxura edo jokaerei emoten deutse izena edo kalifikatzailea.

Halan ba ze, Bermeon, esate baterako, Tolle (Mustelus asterias) deitzen jako pertsona baldar, adigogorra eta motelari. Eskarmentuduna Zimarroie (Thunnus thynnus) da, baina zuhurra eta zintzoari Marraixue (Lamna nasus) dala esango jako. Kokolo eta memeloa beti izango da Lebatza (Merluccius merluccius), eta burugogorra, Atun-burue. Ondo ikusten ez dauena Itsukidxe (Galeus melastomus) da, baina neska polit eta liraina, Angirie haina polita izango da. Eta asko edaten badogu, seguruenik Berdela (Scomber scombrus) harrapatuko dogu .

Hara ba, zelan arrainek itzultzen deuskuezan guk eurei emondako izenak.


TOLLE


ZIMARROIE


ITSUKIDXE


AINGIRIE


MARRAIXUE


LEBATZA



ATUN BURUE



BERDELA


ARRAINEN IZENAK BERMEON


1


8



5



♀
2


9


6


3


10



7



4



11


	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
1	LANPROI (LANPROIE)	Petromyzon marinus	Lamprea	
2	ITXAS-KATU (ITXAS-KATUE)	Chimaera monstrosa	Quimera	Aintzina, bere gibeletik, hazteria eta azaleko gaixotasunak osatuteko orio bikaina lortzen zan.
3	GARDA (GARDIE)	Hexanchus griseus	Cañabota gris	Pertsona iskanbilatsuari deitzen jako "gardie"
4	TRONPA (TRONPIE) TRONPARRAIN (TRONPARRAINE) MARMOKARRAIN (MARMOKARRAINE)	Cethorhinus maximus	Peregrino	Gibel oso handiduna; aintzina bitamina askodun saina lortzen zan bertatik.
5	BILLAU (BILLAUE) AINGERU-GUARDAKO (AINGERU-GUARDAKUE)	Squatina squatina	Angelote	Sareekaz harrapatzen zan (Billau-sariek) eta kontuz ibili behar da haginka egiten dau eta. Jateko balio dau eta azala arotzentzat lixa modura erabiltzeko.
6	MIELKA (MIELKIE)	Squalus sp.	Mielga Galludo	Gibela bitaminetan aberatsa. Apaijuetan josita dagozan arrainak eta amuskiak be jan egiten dauz.
7	LIXA (LIXIE)	Centrophorus squamosus	Quelvacho	Antzina asko jaten zan sikatuta. Gibeletik kutzuluetarako orioa lortzen zan. Azala arotzentzat lixa.
8	KATE (KATIE)	Centrophorus calceus	Quelvacho espátula	Lixaren antzekoa baina mutur zapala. Arotzek nahiago eben honen azla lixarena baino.
9	PITXARROSA (PITXARROSIE)	Scyliorhinus canicula	Pintarroja	Badaezpadako andrei deitzen jake **pitxarrosie**.
10	ITSUKI (ITSUKIDXE)	Galeus melanostomus	Pintarroja bocanegra	Oso estimatua jateko, batez be, sikatuta. Ondo ikusten ez dauenari deitzen jako **itsuki**.
11	KATOARRAIN (KATOARRAINE) MOMA (MOMIE)	Scyliorhinus stellaris	Alitán	Pitxarrosearen antzekoa baina handiagoa.

	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
12	ITXAS-OTSO (ITXAS-OTSUE)	Isurus oxyrhincus	Marrajo	Ez da asko ikusten gure ureetan. Gibel handia eta bitaminaduna.
13	MARRAIXO (MARRAIXUE)	Lamna nasus	Marrajo sardinero	Aintzina, **Burutue** deitzen ei jakon. Gure ureetan **Itsas-otsue** baino normalagoa da; ha baino lodiago eta handiagoa izaten da, eta gibel handikoa (500 kilo eduki leiteke). Antzina, gibeletik lorturiko orioa txalupen paloei , tostei etabarri emoten jakon barnizaren modura. Esperientziz asko dakienari deitzen jako **marraixue**.
14	TOLLE (TOLLE)	Mustelus asterias	Musola pintada	Mugitzen ez dan arraina da. Horregaitik, pertsona alperrei eta deitzen jake **tolle**.
15	KAZOI (KAZOIE)	Galeus galeus	Cazón	Tollen antzekoa da eta sarritan nahastu egiten dabe batzuk. Gibel aberatsa bitaminetan. Bere hegoak oso estimatuak ("aletas de tiburón").
16	DUROI (DUROIE)	Prionace glauca	Tintorera; Caella	**Tiburoi(e)** be deitzen jako.
17	MAZTRANGA (MAZTRANGIE)	Dastayatis pastinaca	Chucho	Ez dau jateko balio. Buztanaren ondoan benenodun eztena dauka, arpoiaren antzekoa.
18	TRAMAI (TRAMAIE)	Myliobatis aquila	Águila marina	Buztan luze-luzea dau eta honen hasieran benenodun eztena. Batzuetan uretatik kanpo salto egiten dau. Itsasotik enbarkaten danean zaratak egiten dauz, arrantzak lez. Ona jateko.
19	PIKUDA (PIKUDIE)	Rhinobatos rhinobatos	Guitarra	
20	ESKOIKARA (ESKOIKARA) ESKOKERA (ESKOKERIE)	Torpedo marmorata	Tembladera	Ikutukeran ikara asmatzen da, elektrizidadea balitz lez.
21	ARRAIDXE (ARRAIDXIE)	Raia sp.	Raya	Hainbat mota dauz: Raia batis, Raia clavata, Raia miraletis, Raia alba... Oso ona jateko.
22	ERREBOILO (ERREBOILUE)	Psetta maxima	Rodaballo	Oso ona jateko. Gaur egun **rodabailue** be esaten jako.



12


19



16



13



20



17



14


21



18


15



22



23



26



29




32




24




30



27



31



25



28




33

	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
23	OILAR (OILARRA)	Lepidorhombus boscili	Gallo	
24	PLATUXA (PLATUXIE)	Platychtis flesus	Platija	
25	LENGUA(d)U (LENGUA(d)UE)	Solea vulgaris	Lenguado.	Oso ona jateko.
26	ATALO (ATALUE)	Mola mola	Pez luna	Itsas-azalean ikusten da norezean balitz lez. Tamaina handikoa izan lei (tona batekoa). Jelatina lez dauka azalpean. Ez da jaten baina gibeletik orio ona lortzen zan kurtzuluetarako.
27	AKULE BIDEGARDA (AKULE BIDEGARDIE)	Xiphias gladius	Pez espada; Emperador	Handia da eta ona jateko.
28	ESPADIN (ESPADINE)	Trichiurus lepturus	Pez sable	
29	GARRIKO (GARRIKUE)	Lepidopus caudatus	Pez cinto; Pez sable plateado	Espadine-n antzekoa baina punta biko buztanduna.
30	AINGIRE-MORA (AINGIRE-MORIE) ITXAS-SUGOI (ITXAS-SUGOIE)	Muraena helena	Morena	Hagin zorrotzak dauz eta bere haginkadea oso txarra izaten da.
31	A(i)NGIRE (A(i)NGIRIE)	Conger conger	Congrio	Kontu handia eduki behar da haginkada sendoa emoten dau eta. Ur handikoa kostakoa baino zuriagoa izaten da. Andra ederragaitik esaten da "aingirie baino politxaue", edo ta "aingirie lakue" dala.
32	SARDI(E)TA (SARDI(E)TIE)	Anguilla anguilla	Anguila	Errioetako bokaletan bizi dira. Kumea **Angule (Angulie)** da.
33	BOKARTA (BOKARTA) ANTXOBA (ANTXOBIE)	Engraullis engrasicholus	Anchoa, Boquerón	Bikaina jateko bai freskotan, bai kontserban. Freskotan "bokartak" dira; Kontserban, barriz, "antxobak". Espezie honen kumeei **Txintxin (Txintxine)** esaten jako.


	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
34	SARDINA (SARDINIE)	Clupea pilchardus	Sardina	Ona jateko. Txikia, **Parrotxa** (Parrotxa) da; handiegia, barriz, **Arinkoi (Arinkoie)**. Atabaletan gatzituta datorrenari **Sardinzar (Sardinzarra)** deitzen jako.
35	SAPALO (SAPALUE)	Alosa alosa	Sábalo	
36	LATXA (LATXIE)	Alosa fallax	Alosa	
37	AKULE (AKULIE)	Belone belone	Aguja	Jan egiten da baina usain gogorra dau. Arin galtzen da.
38	BOTAKAR (BOTAKARRA)	Scomberesox saurus	Paparda	Bokart handiaren tamainakoa edo, eta oso ona jateko.
39	BOLADOR (BOLADORA)	Cypselurus heterurus	Pez volador	
40	LASUN (LASUNE)	Mugil cephalus	Múgil	Portuan eta errio-bokaletan bizi da.
	HONDOKO-LASUN (HONDOKO-LASUNE)	Mugil chelo	Lisa	Itsasoan bizi da espezie hau.
41	KORKOI (KORKOIE)	Mugil auratus	Galupe	Lasune-n antzekoa da vaina urre kolorezko markatxo bat dau belarrian. Ona jateko.
42	ABUX (ABUXE)	Atherina presbyter	Pejerrey	Ona jateko. Odolik bako arraina dala esaten da, eta honegaitik pertsona gibelandiagaitik be esaten da Abuxe dala.
43	ITXAS-SAPO (ITXAS-SAPUE) SAPUE (SAPUE)	Lophius piscatorius	Rape	Oso ona jateko.



34




41




38




35




42



36




39




43





37




40


44



45



46


47


48


49


50


51


52


53



54

	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
44	OTSOBABAZTO (OTSOBABAZTUE)	Blennius gattorugine	Torillo	Hirzpalau espezie ezbardin dagoz: Blennius gattorugine, Blenius pholis...
45	SALBAIDXO (SALBAIDXUE)	Trachinus draco Trachinus vipera	Escorpión Salvariego	Itsasokoa Hondatzetakoa Buru ganean su pozoitsua daukie. Biak onak jateko.
46	LEBATZ (LEBATZA)	Merluccius merluccius	Merluza	Oso ona jateko. Kilo batetik beherakoa **Peskadila (Peskadilie)** da; Kumea, **Karioka (Kariokie)**. Ganora bako pertsoneari be "Lebatza" esaten jako
47	MAKAILO-ARRAIN (MAKAILO-ARRAINE)	Molva molva	Maruca	
48	BRIDXANDA (BRIDXANDIE)	Molva dypterigia	Arbitán; Maruca azul	
49	LOTXA (LOTXIE)	Phycis blennoides	Brótola de fango	Ona jateko
50	LOTXA-BALTZ (LOTZA-BALTZA)	Phycis phycis	Brótola de roca	Lotxie baino hobea ei da jateko.
51	AUENBOLO (AUENBOLUE)	Raniceps raninus	Rana de mar	
52	A(i)NGIRE-BIZAR (A(i)NGIRE-BIZARRA)	Gaidropsarus vulgaris Ciliata mustela	Lota Barbada	Onak jateko
53	LIRIDXO (LIRIDXUE)	Micromesistius poutassou	Bacaladilla	
54	TAKART (TAKARTA)	Trisopterus luscus	Faneca	

	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
55	ZABALEKO TAKART (ZABALEKO TAKARTA)	Trisopterus minutus	Capellán	
56	MAKAILO (MAKAILUE)	Gadus morhua	Bacalao	Ez da gure kostaldean harrapatzen norteko ureetan baino. Oso ona eta famatua jateko.
57	ABADEJO (ABADEJUE)	Pollachius pollachius	Abadejo	Makailue-n antzekoa da, eta ona jateko.
58	KABRA-GORRI (KABRA-GORRIDXE)	Helicolenus dactylopterus	Gallineta	Oso ona jateko.
59	GONBIX (GONBIXE)	Scorpaena scrofa	Cabracho	Oso ona jateko. Buru ganean su pozoitsuak dauz.
60	ITXAS-KABRA (ITXAS-KABRIE)	Scorpaena porcus	Rascacio	Oso ona jateko. Buru ganean su pozoitsuak dauz.
61	MERO (MERUE) MERO-BALTZ (MERO-BALTZA)	Polyprion americanum	Cherna	Zabaleko arraina da. Oso ona jateko.
62	MERO-ZURI (MERO-ZURIDXE)	Epinephelus guaza	Mero guaza	Kostaldekoa da. Oso ona jateko.
63	KABRA (KABRIE)	Paracentropristis cabrilla Paracentropristis scriba	Cabrilla Serrano	Onak jateko
64	PAPARDO-GORRI (PAPARDO-GORRIDXE)	Beryx decadactylus	Palometa roja	
65	ERREGE (ERREGIE)	Beryx splendens	Alfonsiño; Besugo americano	Sarritan, hau eta Papardo gorridxe nahaztu egiten dira


55


59


62


56



63



57


60


64


58


61


65


66



70


73


67


74



68


71


75


69


72


76

	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
66	PAPARDO (PAPARDUE)	Brama brama	Palometa; Japuta	Kolore ilunekoa da eta oso ona jateko. Aurpegi borobildun pertsonei esaten jake "paparduen arpidxe" daukiela.
67	TXILIPITXERO (TXILIPITXERUE)	Coris julis	Julia	Aintzina, antza, **Lula (Lulie)** zan tamaina handikoa, eta **Txilipitxo (Txilipitxue)** txikia, baina egun biak dira **Txilipitxeruek**.
68	DURDOI (DURDOIE)	Labrus bergylta	Maragota	Ezpain lodidunei be arrain honen izena emoten jake.
69	GALDXOI (GALDXOIE)	Labrus bimaculatus	Gallano	Durdoie-n antzekoa eta ona jateko.
70	MUSOI (MUSOIE)	Diplodus sargus	Sargo	
71	MUXAR (MUXARRA)	Diplodus vulgaris	Mojarra	Pertsona tranpatiei esaten jake muxarra.
72	ERRIDXO-ARRAIN (ERRIDXO-ARRAINE)	Lithognatus mormyrus	Herrera	Errioetatik gorantz be nahiko sartzen da. Sarritan, mamarrotxo parasitoa izaten dau aho barruan.
73	BREKA (BREKIE)	Pagellus erytrhinus	Breca	
74	BESEU (BESEUE)	Pagellus cantabricus	Besugo	Kilo batera heltzen ez dana **Beseu-txilo (Beseu-txilue)** da; kumea, **Txilo (Txilue)**. Oso ona jateko.
75	ALLUET (ALLUETA)	Pagellus acarne	Aligote	
76	URREBURU (URREBURUE)	Sparus aurata	Dorada	Urre kolorezko burua dau. Errioetako bokaletan be bizi da. Ona jateko.

	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
77	SABAIDXE (SABAIDXE)	Pagrus pagrus	Pargo	Ona jateko.
78	BURUZBERAKO (BURUZBERAKUE)	Dentex dentex	Dentón	Ona jateko.
79	ZAPATERO (ZAPATERUE)	Spondyliosoma cantharus	Chopa	
80	BEDARDXALE (BEDARDXALIE)	Sarpa salpa	Salema	Itsas-bedarrez elikatzen da gehien bat; hortik izena.
81	BUSTENBALTZ (BUZTENBALTZA) POPAMIENTO (POPAMIENTUE)	Oblada melanura	Oblada	Musoie-n antzekoa da.
82	BOGA (BOGIE)	Boops boops	Boga	Sarritan, mamarrotxo parasitoa izaten dau aho barruan.
83	ERROMERO (ERROMERUE)	Remora remora	Rémora	Arrain handiagoei itsatsita joaten da. Aintzina, kasko eta lemetara be enpikatzen ei zan.
84	SANPEDRO-ARRAIN (SANPEDRO-ARRAINE) ITXAS-OILAR (ITXAS-OILARRA)	Zeus faber	Pez de San Pedro	Oso ona jateko. Zapala da eta itsasotik ataratzekoan zurrunga egiten dau.
85	KUKUTX (KUKUTXE) PERLOI (PERLOIE) ARRAINGORRI (ARRAINGORRIDXE) NEZKAZAR (NESKAZARRA)	Trigla sp.	Rubio	Honen antzeko espezie guztiak nahasten dira eta orokorrean Kukutx (Kukutxe) izenaz deitzen jake.
86	KUKUTZ BALTZ (KUKUTZ-BALTZA) PERLOI BALTZ (PERLOI-BALTZA)	Eutrigla gurnardus	Perlón; Borracho	
87	BARBARIN (BARBARINE)	Mullus surmuletus	Salmonete de roca	Oso ona jateko. Badago **Basatako barbarine** (Mullus barbatus- Salmonete de fango) baina bestea baino txikiagoa da eta ez hain gozoa jateko.



77


78



79


80



81


82



83


84


85


86


87


88


95


92


89


96


93


90


97



94



91


98


	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
88	OTSOBURUZKO (OTSOBURUZKUE)	Gobius sp.	Gobio	Gobius familiako espezie asko dago: cobitis, niger, pictus... Otsobabaztue-n antzekoak dira baina ez daukie gorputz likatsurik.
89	TXITXARRO (TXITXARRUE) TXITXARRO-BALTZ (TXITXARRO-BALTZA)	Trachurus trachurus	Jurel	Udazken eta neguan kalan harrapatzen direnei **Kala-txitxarro (Kala-txitxarrue)** deitzen jako. Umeen zakilari be izen hori emoten jako.
90	TXITXARRO ZURI (TXITXARRO ZURIDXE)	Trachurus mediterraneus	Jurel mediterráneo	Beste Txitxarrue-n antzekoa da baina kolore argiagoduna. Kilo bat baino gehiagokoari **Txitxarro-marikole** esaten jako, eta oso preziatua da jateko.
91	PESPILOTO (PESPILOTUE)	Naucrates ductor	Pez piloto	Arrain handiekaz eta itsauntziekaz ibiltzen da itsaso zabalean. Ez ei da kostara hurreratzen.
92	BURBIN (BURBINE)	Argyrosomus regius	Corvina	Lupine-n antzekoa eta oso ona jateko.
93	GURBI (GURBIDXE)	Sciaena cirrosa	Verrugato	Oso ona jateko.
94	LUPIN (LUPINE)	Dicentrarchus labrax	Lubina	Oso ona jateko.
95	BERDEL (BERDELA)	Scomber scombrus	Caballa	Txikiari **Pelikato (Pelikatue)** esaten jako. Mozkorrari eta gizonaren zakilari be berdela esaten jako.
96	MAKA(r)EL (MAKA(r)ELA)	Scomber japonicus	Estornino	
97	ATUN (ATUNE)	Thunnus alalunga	Atún blanco; Albacora; Bonito del Norte	Arrain hegaluzea da. Txikiari (4 kilora artekoa edo) **Tomatero (Tomaterue)** esaten jako; eta bardingoari (8 kilora arte), **Atun-biribil (Atun-biribile)**. Oso ona jateko bai freskotan zein kontserban. Pertsona kokoloari esaten jako "atunburue" dala.
98	ZIMARROI (ZIMARROIE)	Thunnus thynnus	Atún rojo; Atún de aleta azul	Arrain hegalaburra da. Oso ona jateko bai freskotan zein kontserban. Asko ibilitako pertsoneari be izen hori emoten jako.


	BERMEO	ZIENTIFIKOA	OFIZIAL A GAZT.	OHARRAK
99	HAGINZORROTZ (HAGINZORROTZA)	Sarda sarda	Bonito	Jaten dan arren, ez da atune edo zimarroie haina ona.
100	SERRUTXO (SERRUTXUE)	Katsuwonus pelamys	Listado	
101	ALBOKERA (ALBOKERIE)	Euthynnus quadripunctatus	Bacoreta	
102	ERROLFIN (ERROLFINE)	Thunnus albacares	Rabil; Atún de aleta amarilla	Gure arrantzaleek Afrika ekuatorialean eta Indikoan harrapatzen daben espezierik garrantzitsuena da. Bermeotarrek emoten deutsen izena bere ingelesezkoa (Yellow Finn) eta aktore famatu batenak (Errol Flynn) nahastuta lortzen da.
103	MONJA (MONJIE)	Thunnus obesus	Patudo; Atún de ojo grande	Tamaina eta pisu handiko zimarroie-n antzeko arraina. Begi handia da.
104	MELBA (MELBIE)	Auxis thazard	Melva	



99


102


100


103


101


104



ARRANTZALEEN MUSEOA - ERTZILLA TORREA
TORRONTERO ENP. Z.B.
48370 BERMEO BIZKAIA